

KOSTUAK:

Gure proiektua abian jartzeko azpiko taulan ageri diren inbertsioak burutu beharko ditugu. Guztira 7.601,80€ beharko ditugunez, bankuan 10.000€ euroko mailegu bat eskatuko dugu, %3ko interesarekin eta 8 urtetan ordaintzera. Mailegu honengatik ordaindu beharko dugun kuota 117,30 eurokoa izango da. Inbertsioen eta eskatutako diruaren diferentzia gure diruzaintzara joango da.

	UNITATEA	PREZIOA/UNITATE KO	PREZIOA GUZTIRA
Materiala (labanak, plastikoa...)	1	100€	100€
Kutxa erregistratzailea	1	200€	200€
Hasierako hornidura	1	930,8€	930,8€
Hotz ganbera	1	400€	400€
Dieta paketzeko makina	1	671€	671€
Ordenagailua	1	300€	300€
Hasierako diruzaintza*	5	1000€	5000€
GUZTIRA			7601'8€

Lehenengo hileetan irabaziak guztira finantzaketarako eta enpresan inbertitzeko erabiliko dira eta ia ez dugu etekinik aterako, baina hurrengo hilabeteetan diru-irabaziak handiagoak izango direla kontuan hartuta eta kapitala pilatzea lortzen dugula, etekinak ateratzen hasiko gara . Etekin hoiak, enpresan eragozpenik edo gastu gehigarriak ez badaude, bazkideen artean bananduko ditugu berdintasunez. Maileguaren finantzazioa behin kontrolatuta kostuak merketuko dira, eta; beraz, etekin gehiago izango ditugu.



Behin inbertsioak finantzatuta, azpian hilabetero izango ditugun kostuak daude adierazita:

	UNITATEA	PREZIOA/UNITATE KO	GUZTIRA
Leasing Furgoneta	1	400€	400€
Lokal alokairua	1	400€	400€
Soldatak	5	1200€	6000€
Hornitzaileen lehengaiak (janaria)*	1	1200€	1200€
Mailegua	1 (8 urtetan 3% intereseekin)	117,30€	117,30€
GUZTIRA			8.117,30€

Beraz, 8.117,30€-ko ordainketa egin beharko dugu hilero. Izan ere, furgoneta eta lokala alokairuan ditugu eta janaria hilero supermerkatuetik jasotzea kostu bat da ere. Soldatak hilero izatea gehitu beharreko gastua bada ere. Guztira, egin beharreko ordainketak diru-sarrerak baino txikiago izatea lortu dugu diru sarreretan azaldutako aldagaiak kontuan izanez. Hala, gure enpresa bideragarria dela bermatu dugu.

INFORAZIO GEHIAGARRIA→Behar dugun janaria kontuan hartuta stockaren kalkulua egin dezakegu:

1. Fruta:
 - 2,25€-ko media kg-ko
2. Barazkiak:
 - 1,53€-ko media kg-ko
3. Haragia:
 - 3,3€-ko media kg-ko
4. Beste batzuk (kontserbak...)
 - 1,2 €-ko media kg-ko

Eroskin hileko erosketa bat 149 produktu ekoizteko (irabazi iturrietan finkatutako kopurua) 1200€-ko erosketa egin behar dugu.